



SEGURTASUN SAILA
Segurtasun ordezkaria
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

EBAZPENA, 2024KO MAIATZAREN 7KOA, TRAFIKOKO ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ, 2024KO OTSAILAREN 20KO EBAZPENAK, EAEN 2024. URTEAN TRAFIKOA ARAUTZEKO NEURRI BEREZIAK EZARTZEN DITUENAK, II. ERANSKINEKO 6. PUNTUAN AURREIKUSTEN DUEN MURRIZKETAREN ZATI BAT KENTZEN DA.

2024ko otsailaren 20ko ebazpenak, Euskal Autonomia Erkidegoan 2024. urtean trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituenak, II. eranskineko 6. puntuan ezartzen du zein egunetan dagoen debekatuta Frantziako mugarako norabidean doazen hainbat bidetan zirkulatzea. Horrek mugaz haraindiko garraioari eragiten dio. Murriztapen horren arrazoia Frantziako jaien egutegia da, horrelakoetan 7.500 kg-tik gorako ibilgailuei muga ixten baitzaie.

6. puntu horretako datetako bat maiatzaren 9a da, eta beraz, zirkulazioa murriztuta dago bezperako 22:00etatik egun horretako 22:00etara arte. Dena den, maiatzaren 9rako aurreikusita zegoen muga-itxiera ez da gertatuko, Frantziako agintariek debeku hori kendu dutelako. Hori dela eta, Trafiko Zuzendaritzaren 2024ko otsailaren 20ko ebazpenean egun horretarako aurreikusita zegoen murriztapena mantentzen jarraitzeko arrazoirik ez dago.

Horregatik guztiagatik eta, trafikoko neurri bereziak ezartzeko ebazpenaren laugarren atalaren arabera, zirkulazio-murriztapena dagoen egunetan eta denbora-tarteetan zirkulazioa baimentzeko aukera dagoela kontuan hartuta, EBAZTEN DUT:

LEHENEGOA.- mugaz haraindiko garraioa egiten duten 7.500 kg-tik gorako ibilgailuek maiatzaren 9an 00:00etatik 22:00etara zirkulatzeko daukaten debekua, trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituen 2024ko otsailaren 20ko Ebazpenaren II. eranskineko 6. puntuan jasotakoa, kentzea.



BIGARRENA.- Ertzaintzari ebazpen honen berri ematea eta, eragindako erabiltzaileek jakin dezaten, eman behar zaion publizitatea ematea.

Estibaliz Olabarri González
TRAFIKOKO ZUZENDARIA